



MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATERAKO GIZARTE HEZITZAILE BAT ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETA DEIALDIA.

Lehiaketa-oposizio bidez Malerrekako Mankomunitatearen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Gizarteratzeko Programa eta Hautzaro eta Familia Programarako gizarte hezitzaile bat aldi baterako kontratatze deialdia, euskara ezagutza duena, administrazio kontratu pean, lanaldi osoan.

Lehiaketa-oposizioa gainditzen duten hautagaiekin lan poltsa sortuko da etorkizunean ordezkapenak bideratu ahal izateko.

Halaber, gerora begira, Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitateak gizarte hezitzaile baten beharra badu, Nafarroako Foru Komunitatea eta Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitatearen artean sinaturiko hitzarmenean araututako programen esparruan aritzeko, edo hitzarmen honetatik haratago dagoen proiektu bat garatzeko, lan poltsa hau erabiliko da.

1.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Malerrekako Mankomunitaterako euskara ezagutza duen gizarte hezitzaile bat kontratatze prozesua arautzea. Aukeratutako langilea Malerrekako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Gizarteratzeko eta Hautzaro eta Familia Programen kudeaketaz arduratuko da.

1.2. 15/2006 legearen arabera Nafarroako Foru Komunitateko eta toki entitateen arteko sinaturiko hitzarmenetan bilduko dira oinarrizko gizarte zerbitzuen jarduketa guztiak, horrenbestez kontratuak lotura zuzena izango du Malerrekako Mankomunitatea eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean sinatuko den hitzarmenaren edukiekin.

2.- Izangaien betebeharrak.

2.1. Aukeraketa honetan onartuak izateko, izangaiek ondoko beharkizunak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako:

- a) Europar Batasuneko herritarra izatea edo, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio librea onartzen duten herrialdeetako herritarra; parte hartu ahalko dute, halaber, espainiarren eta Europar Batasuneko Estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoek edo adin horretatik gorakoek, baldin eta haien kontura bizi badira.
- b) Adinez nagusi izatea.
- c) Gizarte hezkuntzan diplomatura edo baliokidea edukitzea.

- d) Euskara ezagutza. C1/EGA edo baliokidea; Izangairen batek ez baldin badu Euskara maila kreditatzeko titulurik, maila zehazteko Euskara azterketa egingo zaio
- e) Gaitasun fisiko eta psikiko nahikoa izatea dagozkion funtzioak betetzeko.
- f) Eginkizun publikoak betetzeko desgaitua edo gabetua ez egotea, eta ezin administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izana.
- g) B1 mailako gida baimena eta kotxea.

3.- Eskabideak

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Malerrekako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusten diren bideetatik edozein erabilita. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 23an bukatuko da. Erregistroko ordutegia honakoa izango da: 9:00etatik 14:00etara (astelehenetik ostiralera).

3.2. Izangaiek eskatutako tituluaren egiaztagiriak aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera, bai eta lehiaketan baliarazi nahi dituzten merezimendu guztienak ere. Agiriok jatorrizkoak izanen dira edo kopia konpultsatuak.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondotik, Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitateko lehendakariak ebazpena emanen du, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesten duena. Ebazpena mankomunitateko iragarki oholean argitaratuko da.

4.- Akatsen zuzenketa.

4.1. Dokumentazioa jaso ostean, akatsen bat balego edo eskatutako dokumentazioa faltako balitz, Mankomunitateko idazkaritza izangaiarekin harremanetan jarriko da, bi eguneko epean eskatutako dokumentazioa aurkez dezaten. Dokumentazio eskari hori zuzenduko ez balu, izangaia baztertua geldituko litzateke.

4.2. Akatsak zuzentzeko epea bukatutakoan, Mankomunitateko iragarki taulan onartutako izangaien behin-betiko zerrenda iragarriko da.

5.- Epaimahaia.

5.1. Epaimahaia ondoko hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Malerrekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Batzordeko Lehendakaria. Ordezkoa: Malerrekako Mankomunitateko Lehendakaria.
- Mahaikidea: Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bateko gizarte hezitzailea. Ordezkaroa: Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bateko gizarte hezitzailea.
- Mahaikidea: Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bateko gizarte langilea. Ordezkaroa: Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bateko gizarte langilea.
- Mahaikidea: Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bateko gizarte langilea. Ordezkaroa: Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bateko gizarte langilea.
- Mahaikide-idazkaria: Malerrekako Mankomunitateko idazkaria. Ordezkoa: idazkariak izendatutakoa.

5.2. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

5.3 Kide anitzeko organoaren eraketa baliozkoa izateko ezinbestekoa izanen da mahaiburua eta idazkaria bertan egotea, edo haien ordezkioak, eta kideen erdiak, gutxienez.

5.4. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aipatzen diren abstentzio arrazoietakoa bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek ezin izanen dute epaimahaian parte hartu, eta deialdia egin duen organoari eman beharko diote horren berri. Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzeko, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.5. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituak laguntza eska dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek epaimahaia lagunduko dute, nork bere espezialitate teknikoan.

6. Lehiaketaldia (gehienez ere 20 puntu).

6.1 Epaimahaiak izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu, ondotik datorren baremoaren arabera. Izangaiek merezimendu guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte, oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatuta erabiliz horretarako. Horrela egin ezean, ez dira kontuan hartuko.

6.2 Lehiaketak gehienez ere **20 puntu** balorazioa izanen du eta modu honetan banatuko da:

1.- Lan esperientzia (gehienez 12 puntu):

b) Gizarte hezitzaile gisa aritu izana administrazio publikoan. Urte bakoitzeko 2 puntu.

c) Gizarte hezitzaile gisa aritu izana administrazio publikoetatik kanpo. Urte bakoitzeko 1 puntu.

Esperientzia denbora egiaztatuak urte osoak egiten ez baditu, dagokion proportzioa aterako da. Halaber, ez bada lanaldi osoan aritu, dagokion proportzioa aterako da.

Ziurtatu beharreko dokumentazioa: enpresa ziurtagiriak.

2- Formakuntza (gehienez ere 8 puntu):

a) Gainditutako formakuntza edo hobekuntza ikastaro bakoitzeko, hezkuntza administrazioek edo unibertsitateek antolatutakoak, dagokion espezializazioarekin lotura dutenak:

- 30 ordu edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko: 0,30 puntu.

- 100 ordu edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko: 1 puntu.

Ziurtatu beharreko dokumentazioa: eskatutako tituluen edo egindako ikastaroen ziurtagirien fotokopia konpultsatua, ikastaroaren iraupenaren ordu kopurua zehazten duena.

6.3 Epaimahaiak noiznahi eskatzen ahalko ditu lehiatzaileen merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak.

6.4 Lehiaketaldia bukatutakoan, epaimahaiak iragarki oholean jarriko du ikusgai izangaien zerrenda, lehiaketaldian lortutako puntuak zehaztuz.

7. Oposizioaldia (gehienez ere 80 puntu).

7.1 Oposizioaldiak gehienez ere **80 puntu** balorazioa izanen du eta modu honetan banatuko da:

1. Lehengoa: eranskinean agertzen diren gaiei buruzko froga teorikoa: 40 puntu. Gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.
2. Bigarrena: kasu praktiko bat garatu: 40 puntu. Gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

7.2 Ariketen iraupena epaimahaiak zehaztuko du, ariketa bakoitzaren hasieran.

7.3 Ariketa bakoitza bukatutakoan, epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu, bai Mankomunitatearen iragarki oholean bai azken proba egin den tokian, gainditu dutenen zerrenda eta lortutako kalifikazioak.

7.4 Ariketa bakoitzerako dei bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute edo, bestela, epaimahaiaren iritziz onargarria den beste nortasun agiriren bat. Oposiziotik kanpo geldituko dira agertzen ez direnak edo nortasuna aipatutako agirien bidez frogatzen ez dutenak.

8.- Oposizioaldia gainditzen dutenen zerrenda.

8.1. Azken ariketaren kalifikazioa bukatutakoan, epaimahaiak ariketak gainditu dituztenen zerrenda jarriko du jendaurrean Mankomunitateko iragarki-taulan. Izangaiek oposizioaldiko ariketetan eta lehiaketaldian lortutako kalifikazioak batu, eta horren arabera ordenatuko du zerrenda eta, orobat, kontratatzeko proposamena egingen du puntuaziorik handiena duen izangaiaren alde. Gainerako kideek ordezkapen poltsa batean sartuko dira.

9.- Errekurtsoak.

9.1. Deialdiaren, oinarrien eta bere aplikazio egintzen aurka, honako errekurtso hauek aurkeztekin ahal dira, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, jakinarazpenaren ondoko hilabetean.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Doneztebe, 2016ko maiatzaren 6a

Lehendakaria,
Jon Telletxea Juanenea

I. ERANSKINA

Eskabide eredua

Eskatzaileari buruzko datuak:

Izen-abizenak:

Jaiotze-data:

NAN zenbakia:

Helbidea:

Herria:

Posta kodea:

Telefona:

E-posta:

Azalpenak:

Mankomunitateak haren zerbitzuan aritzeko gizarte hezitzailea aldi baterako kontratatzeko deialdia argitaratu du.

Eskatzaile honek deialdi horretan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu.

Honekin batera deialdian eskatzen diren dokumentuen fotokopia konpultsatuak aurkezten ditu, baita lehiaketaldian baloratuko diren merezimenduei dagozkienak ere.

Eskaera:

Eskabide hau onartzea eta deialdiko probetan parte hartu ahal izatea.

(Data eta eskatzailearen sinadura)

II. ERANSKINA

Ezagutza probarako gaitegia:

-15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Gizarte zerbitzuei buruzkoa.

-69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, gizarte zerbitzu orokorren zorra oneste duena. Nafarroako Gobernua.

- Gizarte Hezitzailea Gizarte Zerbitzuetan. Metodologia eta talde lana.

- 32/2013 FORU DEKRETUA, maiatzaren 22koa, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Programa eta Finantzaketa arloan garatzeko erregelamendua onesten duena.

-“Manual de Intervención en situaciones de Desprotección Infantil en la Comunidad Foral de Navarra. Proceso de intervención y competencias”. Nafarroako Gobernua.